


# INFLAZIOA

## Inflazioa %3,2an mantendu da maiatzean

### KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Inflazioa %3,2an mantendu zen maiatzean, elektrizitatearen eta gasaren neurritasunean oinarrituta; garraioak eta zerbitzuek, berriz, goranzko presioa egiten jarraitu zuten. Azpiko inflazioa hamarren bat igo zen apirilarekin alderatuta, zerbitzuek bultzatuta. Aitzitik, hondarreko inflazioa moteldu egin zen energiak eutsi egin zueako eta prestatu gabeko elikagaien presio txikiagoagatik.


### KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2024	2025	2026ko maiatza	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	3,6	3,1	3,2	3,2
Azpiko inflazioa (%84,8)	6,2	3,2	2,9	2,5
- Elikagai landuak (%14,8)	12,5	4,6	3,0	0,4
- Industria ondasunak (%20,2)	4,7	1,2	0,0	0,0
- Zerbitzuak (%49,8)	4,3	3,5	4,0	2,1
Hondar inflazioa (%15,2)	-6,4	2,6	4,4	0,7
- Landu gabeko janariak (%6,4)	7,3	4,0	4,1	0,3
- Energia (%8,8)	-17,0	1,0	4,5	0,4


### AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




### HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



## ELIKAGAIEN PREZIOA


Urte arteko aldakuntza tasa



Taldeka, garraioak izan zuen inflaziorik handiena (%6,8), erregaien garestitze jarraitua islatuz. Ondoren jatetxeak eta hotelak (%5,1) eta aseguruak eta finantza-zerbitzuak (%4,7) izan ziren gehien garestitu zirenak. Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak ere hazkunde nabarmena izan zuten (%3,4), igoera apirilean baino apalagoa izan bazen ere. Aitzitik, moderazioa jantzi-

## ZERBITZUEN PREZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



en eta oinetakoen merkatzean oinarritu zen (-%3,7), urtarokotasunari lotuta, eta etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaien hazkunde txikian (%0,6), gasa eta argindarra mantendu egin bait ziren. Komunikazioek (-%0,3) negatiboan jarraitu zuten, eta altzariak eta etxeko tresneriek ere oso hazkunde apala izan zuten (%0,9).

## KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2026ko maiatza

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
<b>INDIZE OROKORRA</b>	<b>3,2</b>	<b>3,2</b>	<b>3,2</b>
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	3,4	2,2	1,6
Edari alkoholdunak eta tabakoa	3,1	3,5	2,9
Jantziak eta oinetakoak	-3,7	-1,1	1,0
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	0,6	1,4	3,1
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	0,9	1,2	0,3
Osasuna	1,7	2,1	2,6
Garraioa	6,8	7,4	7,3
Komunikazioak	-0,3	0,2	0,9
Aisia eta kultura	2,4	2,6	2,0
Hezkuntza	2,1	2,6	3,8
Jatetxeak eta hotelak	5,1	4,8	4,0
Aseguruak eta finantza-zerbitzuak	4,7	4,6	3,9
Zaintza pertsonala, babes soziala eta hainbat ondasun eta zerb.	2,7	3,1	3,1

Iturria: INE eta Eurostat.